

Irugarren sorta-18gan zenbakia. Tercera serie. N.º 18. IRUÑA-PAMPLONA

ERRIAREN INDARRA

Duela zenbait urte oraindik, talde batzuek ezik, erri xehea beldur zan bere gogo agertzeko. Ain menperatuak giñan, gure etsaiaren itz eta lanak onartzen bai genituen. Gure nortasuna galdurik, ez giñan personak, artalde prestu bat baizik.

Gaur, abertzaletasunari esker, itxaropen zoriontsu bat bezala agertzen zaiku begietarat, Erriaren piztea, Erria, bere nortasuna eta erresponsabilidatea artzera dijoa.

Erriak —edozein erriak— zuzendari zintzoak dietuen erriak bai badaki behar den bezala jokatzeko. Eta laister etorriko dira diogun au probatuko dituzten egunak. Euskal-erriko nekazari ta langilleak, orrelako gizonak dituztela aintzindari, ziur gaude, prest izango dirala erriaren aldaketa egiteko eta Euzkadi'ren buruan jartzeko.

* * *

Orain berrikitan ikusi dugu —ez giñan urruti— España'ko Elizak eta Estaduak, biak elkar-artuta, nola uko egin diote Trintxerpe'ko erriaren borondateari. Jokoa garbi dago. Alde batetik menperatzalleak —eta Gotzai Gobernadorearekin zen, au da, menperatzalleekin— ta bestetik menperatuak, Erria, Euskal-erria.

Menperatuen karraxiak eta nahiak ezer ez dute balio menperatzalleentzat. 10.000 Trintxerpe'tarren borondateak zapalduak izan dira arrazoi triste baten gatik, "konpromiso" zikin baten gatik.

Bainan Trintxerpe'ko erriak egiazko erantzuna eman du. Zaldibar'ko erriak bere garaian eman zuen berbera menperatzalle arrikatu; kasu hunetan apaiz bat baldin ba zan ere; denbora berean, erriaren lagun bat —beste apaiz bat— goratzen zutela biotzez. Bigarren apaiz hau, errikoa bai da, eta benetan zintzo jokatu baitu danen aurrean, eta... beldurrik gabe: GIZONKI.

Euzkadi'n, gaur, denak, alde edo kontra jartzen asiak dira: Erriaren alde edo erriaren kontra, Trintxerpe'n bezala. Alde batetik menperatzalleak, bestetik menperatuak. Eta or, ain zuzen ere, ikusten dugu itxaropenez egoreko arrazoiak: Trintxerpe'n erriaren alde geienak zeuden, kontra berriz oso gutxi. Biharkoa beraz, gurea da; Euzkadi azkatuko da. Erriak baitu berareki INDARRA.

U.

113 1964 ZUTIK! di da geure a trabajo • an zkadi • geu cultural • p euzkadi da z vasens • na cación de eta • eta'ren agerpena • publicación de eta • eta'ren agerpena • publicación de eta • eta'ren agerpena • p

Irugarren sorta - 18 gan zenbakia Tercera serie nº 18 IRUÑA - PAMPLONA

ERRIAREN INDARRA

Duela zenbait urte oraindik, talde batzuek ezik, erri xehea beldur zan bere gogo agertzeko. Ain m menperatuak giñan, gure etsaiaren itz eta lanak onartzen bai genituen. Gure nortasuna galdurik, ez giñan personak, artalde prestu bat baizik.

Gaur, abertzaletasunari esker, itxaropen zoriontsu bat bezala agertzen zaiku begietarat, Erriaren piztea, Erria, bere nortasuna eta erresponsabilidatea artzera dijoa.

Erriak —edozein erriak— zuzendari zintzoak dietuen erriak bai badaki behar den bezala jokatzeko. Eta laister etorriko dira diogun au probatuko dituzten egunak, Euskal-erriko nekazari ta langilleak, orrelako gizonak dituztela aintzindari, ziur gaude, prest izango dirala erriaren alde aldaketa egiteko eta Euzkadi'ren buruan jartzeko.

.....

Orain berrikitan ikusi dugu —ez giñan urruti— España'ko Elizak eta Estaduak, biak elkar-artuta, nola uko egin diote Trintxerpe'ko erriaren borondateari. Jokoa garbi dago. Alde batetik menperatzalleak —eta Gotzai Gobernadorearekin zen, au da, menperatzalleekin— ta bestetik menperatuak, Erria, Euskal-erria.

Menperatuen karraxiak eta nahiak ezer ez dute balio menperatzalleentzat. 10.000 Trintxerpe'tarren borondateak zapalduak izan dira arrazoi triste baten gatik, "konpromiso" zikin baten gatik.

Bainan Trintxerpe'ko erriak egiazko erantzuna eman du. Zaldibar'ko erriak bere garaian eman zuen berbera menperatzalle arrikatu; kasu hunetan apaiz bat baldin ba zan ere; denbora berean, erriaren lagun bat —beste apaiz bat— goratzen zutela biotzez. Bigarren apaiz hau, errikoa bai da, eta benetan zintzo jokatu baitu danen aurrean, eta... beldurrik gabe: GIZONKI.

Euzkadi'n, gaur, denak, alde edo kontra jartzen asiak dira: Erriaren alde edo erriaren kontra, Trintxerpe'n bezala. Alde batetik menperatzalleak, bestetik menperatuak. Eta or, ain zuzen ere, ikusten dugu itxaropenez egoreko arrazoiak: Trintxerpe'n erriaren alde geienak zeuden, kontra berriz oso gutxi. Biharkoa beraz, gurea da; Euzkadi azkatuko da. Erriak baitu berareki INDARRA.

" U. "